
48 17

BERMEOKO MERKATARITZA PORTUA



Bermeoko portuko merkataritza zonaldea. CC BY-3.0-ESEJ-GV/Irekia. Mikel Arrazola.

Bermeo Eusko Jaurlaritzak kudeatutako merkataritza jarduera duen portu bakarra da, hala ere, erdia Mundaka udal mugartearen barruan dago.

Portu hau berria da eta Bermeoko tradiziozko arrantza portutik gertuen dagoen kostaldeko harkaitzen gainean eraikita dago. Eusko Jaurlaritzak egindako apustu bat izan zen, nahiz eta ia mugarik gabeko azpiegiturez hornitutako Bilboko portutik oso gertu egon.


Hura eraikitzeko obrak 1980eko hamarkadaren hasieran hasi ziren, eta merkataritza moilak 2000. urterako amaitu ziren. Hala ere, urte hura baino lehen, merkataritza portua partzialki eraginkor zegoen.

Gaur egun, moilen 658 m lineal eta 6,5 m sakonerako eta 110 m luzerako murrizpenak ditu; hau da, nahiko txikiak diren ontziak har ditzake bakarrik.


Urteko trafikoa 120 ontzi ingurukoa da. Horiek 300.000 eta 400.000 tona arteko zama-mugimendua sortzen dute.

Zerratutako egurra, aglomeratutako taula eta sodio sulfatoa dira kargak nagusiak, deskargak, berriz, industrian erabiltzeko altzairuko bobinei eta barrei dagozkie.

Eusko Trenbideak zerbitzua eskaintzen dio. Horrek merkantzia ibilbideak osatzen ditu portua eta Arcelor de Sestao artean, trenbidea portutik oso gertu igarotzen baita, eta portua Bermeoko tren-geltokiarekin lortzen duen adar bat egin da.



Ortoargazkia 1965. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Bizkaiko Foru Aldundia / Diputación Foral de Bizkaia. Oraindik ez da merkataritza portua eraikitzen hasi.



Ortoargazkia 2002. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Merkataritza portua amaituta dago dagoeneko (argazkiaren beheko aldea).